


IKASTEKO



ITXAROPENA

Nerea Muguerza
625755402



Nerea Muguerza

**Ikasteko
1**

Editorial Itzaropena

DEPOSITO LEGAL S. S. 206/69
© COPYRIGHT BY EDITORIAL ICHAROPENA
PROHIBIDA LA REPRODUCCION
PRINTED IN SPAIN

IRUDIGILEA: JOSE ANTONIO PEREZ FABO
ZARAUTZ'ko ITXAROPENA IRAR-LANTEGIETAN ARGITARATUA

Sendia

Mutil au
Patxi da.



Neskatil au
Amaya da.



Andre au
ama da.



Gizon au
aita da.



Patxi
eta
Amaya
senideak
dira.



Ama
eta
aita
gurasoak
dira.

Patxi Amaya'ren anaia da.
Amaya Patxi'ren arreba da.
Patxi eta Amaya seme-alaba onak dira.

Aitak eta amak
seme-alabekin
batean
sendi osoa
egiten dute.



aitona eta amona,
osaba eta izeba,
eta lehengusuak ere
sendikoak dira.



Irudi au sendi
bat da.

Erantzun zazu.

Guztiz zenbat lagun dira? 6

Zer izen du aitak? Gizona

Zer izen du amak? Andrea

Patxi'ren arreba Amaya da.

Amaya'ren anaia Patxi da.

Patxi eta Amaya gurasoak al dira? ez

Zuen etxean zenbat sarie? 4

Gure amak etxea
txukuntzen du.



Janariak
egosten ditu.



Zapi zikinak
garbitu
egiten ditu.



Soinekoak
josten ditu.



Jantziak
plantxatu
egiten ditu.



Guziok lan egiten dugu.

Begira...

arotza, margolaria, nekazaria,
mekanikaria, idazkaria, argitaldaria.





Gurasoek ezi
egiten gaituzte.
Andereñoak ere
ikastolan
gauza asko
irakasten dauskuz.

Ni ikastolara pozik joaten naiz.
Andereñoak abesti politak
irakasten dauskuz.

Abestia

"Iru txito izan eta ama galdu.
Iru txito oien ama nork jan du?
Iru txito oien ama oiloa...
Axeriak jan diola lepoa.
Eta oiloa... eta oiloa...
axeriak jan diola lepoa.
Purra, purra egin nion atetik
eta kukurruku egin zidan eltzetik".

Gure gurasoek maite gaituzte.
Guk ere gure aita eta ama
asko maite behar ditugu.
Senideek alkar maite behar dute.
Patxi'k eta Amaya'k alkar maite dute.
Esanekoak izan behar dugu.
Amaya eta Patxi esanekoak dira.

Erantzun zazu:

Nork garbitzen du etxea? amak

Nork erosten ditu gauzak? amak

Zer ikasten da ikastolan? matematika eta

Nork lan egiten du? danok

Janariak



Txakurrek,
txoriek
eta
gizonek jan
egiten dute.



12



Bizitzeko
jan eta edan egin behar dugu.
Jan eta edan gabe
il egingo giñake.



Katuek
ere bai.

Erantzun zazu:

Zenbat otordu egiten ditugu
egunaren buruan?

4
4

13



Gose naizenean
jan
egiten dut.



Egarri naizenean
edan
egiten dut.



Behar ainbat
jan ondoren
ez naiz gose.



Behar ainbat
edan ondoren
ez naiz egarri.



Abestia

Maritxu, nora zoaz
eder galant ori?
Iturrira, Bartolo
nai badezu etorri.
Iturrian zer dago?
ardotxo zuria
biok edango degu
nai degun guztia.

Belarkiak jaten ditugu

Barazkiak



Lursagarrak







14
Igaliak



Uztak



Aberekiak ere jaten ditugu.




eta gatza
janariari laguntzeko dira.



Esan zazu gauza auek jateko diran ala ez:

Sagarra, egurra, ikatza, ardia, aza,
arria, katua, usoa, sardiña,
papera, txakurra, behia.

Marraztu itzazu jateko diran belarki bat eta abere bat.



Bete itzazu utsak:

Oiloak ARRAULT ZAK egiten ditu.

Behiak ESNEA ematen du.

Mahatsarekin ARDOA egiten da.

Sagarrarekin SAGARDOA egiten da.

Asko jateak kalte egiten du.
Gutxi jateak ere bai.

Behar ainbat bakarrik
jan behar dugu.

Gehiegi
jan du.



Gehiegi
edan du.



Oso gutxi
jaten du.



Txomin
gaxorik dago.

Amak
emandako
guztia
jaten du.



Pello
sendo dago.



Astiro-astiro
jan behar da.
lto-itoka jateak
kalte egiten du.

Janariak ahoan
ongi mamurtu
Mau-mau
jan behar dugu.



Jan aurretik
mutiko hau
eskuak
garbitzen
ari da

Erantzun zazu

Gehiegi jatea ona ahal da? *ez*

Ardo gehiegi edan ezkerro
zer gertatzen da? *inazkorta egiten da*

Gutxiegi jan ezkerro, zer gertatzen da?

geli xohu egiten da

Utsuneak bete itzazu

ASKO jateak kalte egiten du.

18 *ASTIRO ASTIRO* jan behar dugu.

Janariak ahoan *trikitu* egin behar dira.

Jantziak Gure amak dendan
ohiala erosi du,
eta (19)
jostunari eman dautso.
Jostunak
orratz eta ariarekin
jantzia josi du.



Mutilla
praka
laburrekin
dago.



Neskatilla
gona
laburrekin
dago.



Gizona
praka
luzeekin
dago.



Andrea
gona
luzeekin
dago.



Kosme jaunak neguan txartesa jazten du.



Gaur jaia da

Mikel'ek soineko berria jantzi du.



Ni udan jantzi-arin ibiltzen naiz.



Aintzinatean gizonak larruz estaltzen ziran.



21



Euria danean zirarekin estaltzen gera.



Gero ikasi zuten jantziak egiten.



Erantzun zazu

Kosme jaunak txartesa neguan zergatik jazten du?

atz-bandia egiten duela

Udan jantzi-arin zergatik ibiltzen zera?

horo handia egiten duela

Zira zertarako da?

ibiltzako zirarekin





Otz egiten du.



Jantzi-lodi dago.



Bero egiten du.



Jantzi-arin dago.



Ikus irudia eta esan zazu zer dagon txarki



Jantziek diru asko balio dute.



Guk ez ditugu ondatu behar.



Gure amak soinekoak garbitzen ditu.



Guk ez ditugu zikindu behar.



Ume zikiña itsusia da.




Ume garbia maitagarria da.



Asma zazu zeintzuk diran:

Umeen jantziak, gizonen soinekoak, emakumeen jantziak.

Etxea



Etxeak ditu: Atea
Baratza.
Balkoia.
Leihoak.
Kebidea.
Teilatua.




Etxe barrua

Nondik sartzen zera etxera? Aterik
Non prestatzen ditu amak janariak?
Sukaldean
Non egoten dira oheak? Logelara
Nondik irtetzen da kea? Kebidetik
Nondik sartzen da argia? Leihotik
Zer dago etxe gainean? teilatua

Lehenago gizonak
arpeetan bizi ziran.



Geroago txabolak
egiten ikasi zuten.



Orain
etxeetan bizi gera.

Etxe au zurezkoa da.



Beste etxe au
izotzezkoa da.


Buztiñezko etxeak ere
ba dira.



Beste batzuk arrizkoak
dira.



Beste batzuk
adrilluz
egiñak dira.



Oraingo etxeak zementuzkoak dira.




Baserriak etxe
zabalak dira.

Uri
aundietako etxeak
bizileku asko dituzte.

Etxe batzuk baratza daukate.

Au
etxegarai
bat da.

Oin asko ditu.



Nere Etxea (abestia)

Mendi puntan dago nere etxea,
zein polita, zein zuria.

An bizi naiz nere amarekin.

Zer zorion andia!


Nere ama eta nere etxea,
ai! zer poza eta zer pakea.

Mendi puntan dago nere etxea,
ai! nere etxe maitea.

Gure amak
etxea
txukundu
egiten du.



Etxeko gauzak dirua balio dute.
Aitak eta amak
etxeko gauzak erosteko
lan asko egiten dute.



Auzokoei
pakean utzi
behar deutsagu



Lagun baten etxean nago.
Txintxo agertuko naiz.




Etxea garbi edukitzen ahaleginduko naiz.



Nik etxeko gauzak ez ditut ondatuko.



Aur auek oso gaizki egin dute.



Irudia begira. Nor agertzen da zintzo? 2 zanbatia



Nor gaizki? 1
Zergatik?

Min ematen diote



Argia

Eguzkiak argia ematen dausku
Eguzkiak egunez argi egiten du.
Egunez argi dago dena.
Ez dugu beste argirik behar.



Begira ta esan, zer dago txarki?



argiak eta izarrak




Ilargiak eta izarrak ere argia ematen dute.

Ilargiak gauez argi egiten dausku.

Gauez ilun dago dena.

Etxean argia pizten dugu.

Kalean ere argiak pizten dituzte.



Utsuneak bete itzazu:

Egunez eguzkiak argi egiten du

Gauez ilargiak argi egiten du.

Etxean gauez argia pizten dugu.

Zuziak
argia
ematen
du.



Kandelak
ere bai.




Butanoak
erretzean
argia
ematen du.



Bonbillak
elektrika
argia
ematen du.



Orain fluorezko
argiak dagoz.



Itsas-argiak ontziak
kaieratzen ditu




Kotxeak argiak ditu

Ikasi izenak




Kale-argia



Kinkea



Krisailua




Esku-argia



Mahi-argia

Zutiko-argia

Marratzu itsas-argia.



Olerkia

Ilargia eta
eguzki eder,
zeru gaineko
izarrak,
gizonentzako
argitu ditu
Jaungoikoaren
indarrak.

Ikusi,
begiekin
ikusten dugu.



Argirik gabe
ez dugu ikusten.



Argi gehiegiak begiei
kalte egiten dautse.




Argi gutxiagiz
ez da
ongi ikusten



**Argi gutxiz ez
dugu irakurri behar**


Begira eta erantzun.

Aur onek Paul
du izena.
Paul'i
zer gertatuko yako?



e 2 duela ikusiko

Orain Paul'ek
ez du
argia piztu beharrik.
Zergatik?



eguzkia dabilako

Erantzun zazu.

Paul'ek ongi egiten ahal du? *e 2*

Zer egin behar du? *argia itzali*

Zergatik? *eguzkia egiten dabilako*

Etxeko abereak

Ton gure txakurrak
etxea zaintzen du.




Ton gurekin jostatzen da.



Ton'ek erbiak
arrapatzen
ere ba daki.



Mitxin, gure katuak,
saguak arrapatzen ditu.



Txakurra eta katua
gizonen bizi-lagun dira.
Etxeko abereak dira, etxetiarrak.



Leoia basoan
bizi da.

Otsoa mendian
bizi da.

Otsoa eta leoia
basa-abereak dira. Basatiak dira

Zer dago txarki?



arolia



oiloa



Txerria



Behia

Zer dala eta zer dala?

Bi belarri ta lau anka,
jo ezkerro ostikoka.

aa
aa


Imanol'ek txakurra
jo egin du,



Imanol
gaiztoa da


40

Gizon
onek
bere
astoa
jo egiten
du.



Gizon
gaiztoa da.

lñaki'k
bere txakurrarekin
lo egiten du.



Txakurrakin
lo egitea
ez da garbia.

Arantza'k
katuari
pa ematen dautso.



Arantza'k
ondo
egiten ahal du?

41

Erantzun Katuak miau egiten du.

Txakurrak gaitzen egiten du.

Oilarrak kekurrak egiten du.

Behiak Muhur egiten du.


Egia ote da?

Txakurrak egoak dituela? ee

Astoak egan egiten duela? ee

Txerriak lumak dituela? ee

Aberen
ipui bat
esazu



Erantzun zazu. Txakurra eta katua etxe-abere zergatik dira?

Otsoa eta leoia

etxe-abere ahal dira? Zergatik?

Etxe-abere batzuen izenak esan itzazu.

Esan egizu basa-abere batzuen izenak.

Marraztu leoi bat.



Marraztu katu bat.



Etxe-abereak

laguntza andia ematen dauskue.



Behiak esnea eman.



Astoak lan egin.



Zaldiak gurdia eramán.

Txerriak aragia eman.



Ardiak artillea eman.



Oiloak arrautzak errun.



Txoriak kaiolan abestu.



Jostaketak

Imanol'ek
asko
ikasten du.



Orain Imanol
jostatzerara doa.

44

Gaur erregeen
eguna da.
Jaia da.



Ikastolarik ez
dugu.

Gure lagunekin
pozik jostatzen
gera.



Sokaz jostatzen da.



45

Zugaztlan jostatzen gera.



Nortzuk pozik jostatzen dira?
Nor dago aspertuta?



Erantzun zazu: Jostailurik bai ahal duzu?

Bai
Zeintzuk naien dituzu? Zergatik?

inguruetan delako, patainak, karpinak eta biekotak
Zeintzuk?

Zeintzuk ez dituzu nai? Zergatik?

Kosmetak aspertu egiten delako

46



Zein jolas gehien gustatzen? *baloia*

Etxean nola jostatzen zera? *bururatsen*

Kalean nola jostatzen zera? *jorginetan*



Eguraldi ederra da.
Eguzkia ortzi urdiñean
argi dago.

Aurrek pelotan
jokatzen dute.
Baita futbolean ere.
Neskatillek
soka-saltoka
jolas egiten dute.

47






Euria da.
Kalean otz egiten du.
Yulen eta Miren
etxean
jolasten dira.
Bai ederki igaro
dutela arratsaldea!!

Pernando'k ez du
golik sartu,
eta Pernando
asarratu egin da

Miren'ek joko
galdu egin du,
baiña Miren
ez da asarratu.



Pernando lagun ona ahal da? ez

Miren zintzoa ahal da? bai

Peru'k jolasean
tranpa egin du.
Itziar'ek Peru'rekin
ez du jolastu nahi

Kontuz!
jolaz onek
arriskua du.



Zein jolas gehien nahi duzu?

Futbols

Txarki dagona esan zazu.





Lagunak

Ibon eta Ander
lagunak dira.



Gure aitak
lagun asko ditu.

Nik ere adiskide asko daukadaz.
Lagunak alkarrekin ibiltzen dira.

Ariketa

Laguna zer da? *adiskidea*
Lagunik eduki behar ote dugu? *bai*
Zergatik? *jolas egiteko*




Nekane Lurdes'en
laguna da.

Gure amatxo
oso ona da.
Gure amatxok
adiskide asko ditu.



Adiskideek alkarri lagun egiten diote.

Lagun asko ahal dituzu? *bai*
Zer izen dute? *Irene, Mirari, Ezekiel*
eta Aita
Lagunekin asarretzen ahal zera? *batzue*
tan



Yon eta Paul
alkarren ondoan
bizi dira.

Yon eta Paul auzokoak dira.

Yon eta Paul lagunak dira.


Yon eta Paul
ikastolara batera doaz.

Yon eta Paul
alkarrekin jostatzen dira.

Mikel'ek auzoko emakume bati
atea zabaldu dautso

Auzokoek alkarri
lagun egin
behar dautse.

Agur
esaten dautse.



Alkarrizketa

Zer izen dute zure auzokoek?

Pebro

Zuen auzoan asko bizi ahal dira?

ez

Auzoko asko ezagun ahal dituzu?

bai

Auzokoei laguntzen ahal dautsezu?

ez

Ni nere lagunekin
 ondo etortzen naiz.
 Nik jostailuak ematen dautsedaz.
 Gu alkarrekin
 jolasten gera.
 Gu jolas-lagunak gera.



Anton
 aur zikiña
 eta lotsagabea da.
 Itz zatarrak
 esaten ditu.




Anton ez da
 gure laguna.




Auzokoei ez kalterik egin.
 Eskillaretan polliki ibilli zaite.
 Ataria ez zazula zikindu.
 Zalapartarik ez egin.
 Auzo-lagun ona izan zaite.

Pernando'k Joxe'ri ez dio
 pelotarik eman dautso
 Pernando auzo-lagun ona ahal da? ez

Aurtxo auek ondo agertzen ahal dira? ez
 Zergatik? orri ez delako egintzan






Kalea

Kale
nagusia

Leihotik begira nago,
kalea ikusten dut.
Kalean jendea joan eta etorri
presaka dabil.
Kalean kotxeak dagoz.
Kale bakoitzak bere izena du.



Abestu zazu

Kale zokoan
illun da gogor euria.
Ate ondoan
aur bat da otzak josia.
Ume zurtxoak
aterpe epelik iñon ez,
aingerutxoa
aren ondoan negarrez.

Kale batzuk laburrak dira.
Beste batzuk estuak.
Kale batzuk zabalak eta luzeak dira,
eta zuhaitzez apaindurik dagoz.

Kalerdia galtzara da.

Kale aldamenak espaloiak dira.
Kotxeak galtzaratik dabilta
eta pertsonak espaloitik.
Gizon au bere tokitik ahal dabil?



Kaleetan txinelak dagoz.
Txinelak kalea zaintzen dute.
Kale-gurutzetan argiak dagoz:
semaforoak dira.
Semaforoak iru argi dituzte:
gorria, oria eta orlegia.



Begira ongi
Txinela non dago? *ezkerrean*
Semaforoa non dago? *erdiaren*
Marra oriak zertarako dira?
Zer gauza dagoz txarki?

matila eta lantza
Zer ote da?

Kalean iru argi
gorri, ori ta orlegi;
gorriakin geldi,
orlegiz, ibilli.



Nik kalean ibiltzen ba dakit.
Beti espaloitik ibiltzen naiz.
Kalean ez dut jolasik egiten.
Semaforoko argi gorriarekin
geldi egoten naiz,
Semaforo orlegiarekin
kalea igarotzen dut.

Kotxeekin ere
kontuz ibiltzen naiz.
Kale erditik ez naiz pasatzen.
Lerro ori tartetik igarotzen naiz.

Itsuei eta zaharrei
kalea igarotzen
lagun egin behar diegu.



Begira:

Zer dago txarki? *y mutil*
eta gizon bat



Gabonak



Ator, ator, mutil etxera,
gaztaña zimelak jatera.
Gabon gaba ospatuzeko
aitaren ta amaren ondoan.
Ikusiko dok aita barrezka,
ama be poz atsegiñez.

Eragiok, mutil,
aurreko danbolin orri,
gaztañak erre artean
gaztañak erre artean,
txipli, txapla, pun.
Gabon gaba pozik igaro daigun.

Gabonak dira. Poz-pozik gagoz.


Jesus aurra Belen'en jaio da.

Turroia jaten dugu.


Belen'go estalpea etxean ipiñi dugu.

Marraztu ezazu:

Belen'go estalpea.



Olentzero.



Eguerrietan zuen etxean
zer egiten duzuten edestu ezazu.

Gabon-abestirik bai ahal dakizu? *Lea*
Abestu zazu.

Mesias sarritan
agindu zana,
aingeru artean
dator gugana.



"Gloria zeruan
pakea emen",
kantari aingeruak
dagoz Belen'en.

Gabon-kantak abesten ba dakigu.



Eguerrietan guk
gabon-zuhaitza
argi, goxo eta jostailuekin
apaintzen dugu.





Trakatan, trakatan, iru errege,
 Trakatan, trakatan Belen'era.
 Belen'en jaio dan Jesus aurtxo
 trakatan, trakatan, jaurestera.
 Beltxor'ek, trakatan, zaldia beltza,
 Kaxpar'ek trakatan, zaldi gorri,
 trakatan trakatan, Baldaxar zarrak
 zaldia, trakatan, txuri-txuri.
 Zapatatxuan jostailu politak ematera.

Aur eder baten billa
 gabiltza zoratzen
 ta izarrak esan digu
 galdetzeko emen.

Jaungoikoaren erri
 maite Jerusalem,
 esan zaiguzu laister
 Jesus non jaio den.

Zer eraman eutsoen erregeek Jesus aurtxoari?

Zer eskatuko dautsezu erregeei?

erregaloo
erregaloo

Egiezu eskutitz bat gehienik nahi dituzun
 jostailuak eskatuaz.



Gaitzaldiak

Oztu egin nintzan atzo, pelotan jokatzeko.



Guk ez dugu minik. Osasun ona dugu.

Gaur eztarrian min dut. Estula ere ba dut. Gaxotu egin naiz. Sendatu arte etxean egon beharko dut.



Gaxotu ahal zera iñoz? *baie*

Non zenuen orduan mina? *eztarrian*

Zertarako da sendagilea? *gaitzak senda teko*



Ohean nago. Sendagillea etorri da. Sukarra neurtu daust. Ahoa begiratu daust.



Gero, orratza sartu daust. Ni ez naiz bildurdu. Minik, oinazetik ez du ematen.

Orain sendatu naiz, eta berriro ikastolara. Pozik noa.



Sendagaiak zertarako dira? *sendateko*

Sukarra zerekin neurtzen da? *termome-
troarekin*


Gure amatxok buruko mina du. Zaratarik ez dut egin behar.



Andoni'k gehiegi jan du orregatik sabeleko mina du.



lñaki'k agineko mina du aginlaria-rengana doa.



Agina ateratzeko ez du bildurrik. lñaki mutil kementsua da.



Itziar izerditan dago

eta ur otza edan du

Itziar gaxotu egin da.

Itziar zergatik gaxotu da? *ur hotza*

Asma zazu: Neskatil onek zer gaitz du? *Agina*
Nongo mina dute beste aukerak?
aginetan, buruko, kementakoa



Zer ote da? Kristalezkoa da, luzea eta meharra, ahoan sartuta neurtzen du sukarra.

Termometroa

Gaxotzen naizenean
sendagaiak
artzen ditut.

Sendagai batzuk
mingaitzak dira,
baina nik pozik
artzen ditut.

Onela laister
sendatuko naiz.



Gaxotu ez gaitezen,
txertatu
egin gaituzte
ikastolan.



UUAAAAAAA




Zertarako da berebil au? 73


Zer esan nahi du  gurutze gorri onek?

peti groa da gaur

Zer saltzen da sendagaitegian? gaur




Zertarako dira tresna auek?



Termometroa



Algodoia



Xiringa

sendatuko



Garbitasuna

Peru, aur arlotea da.
Ez da ñoiz garbitzen.
Eskuak eta aurpegia
zikinak ditu.
Ilerik ez du orrazten.
Jantziak loi-loi dauzka.

74

Baina Peru'k
garbiagoa izatea
erabaki du.



Maite'k eskuak garbitzen ditu.

Maite neskatil garbia da.

75




Zikin dagoena lotsagarri.




Goizero nik
xaboi eta urez
aurpegi eta belarri
eta eskuak
ongi garbitzen ditut.

Ortzak ere egunero
garbitzen ditut.

Eta ilea orrazten dut.



Ura nere laguna da.
Urari esker
jantziak garbi ditut,
gorputza txukun daukat,
eta osasun ona dut.



Bañutegi ontako
gauza bakoitza
arkitu zazu.

1 Bañu-ontzia

2 Pixontzia

3 Konketa

4 Ispillua

5 Dutxa

Non dagoz argia,
errezela eta
txorrota?

Asma zazu:

77

Bañu-ontzia kin eta Konketa kin garbitzen naiz.

Orrazioa kin ileak orrazten ditut.

Ortzak kin azazkalak moztzen ditut.



Aur txukuna izateko zer egin behar da?

indKurri

Lurreko gauzarik
ez jan.


Gaxotuko
zera-eta.



Aur zikina iñork ez du maite.



Garbitzeko tresna batzuk
marratu itzazu.



Saldu eta erosi



Amak esnea erosten du.
Esnekariak amari
esnea saltzen dautso.



Amak ogia erosten du.
Okinak amari
ogia saltzen dautso.



Aitak liburua erosi du.
Liburariak aitari
idaztia saltzen dautso.



Puztuki bat erosi dut.
Dendariak
saldu dit.

Burni-dendan mailuak saltzen dira.
Ordu-dendan ordulariak saltzen dira.
Jostetxean soinekoak saltzen dira.
Aterki-dendan aterkiak saltzen dira.
Azokan igaliak saltzen dira.
Arategian aragia saltzen da.

Onako gauzak non saltzen dira?



Papertegian
idazteko
tresnak
saltzen
dira.



Esnekariak esnea saltzen du.
 Amak diruz ordaintzen dautso.
 Aitak liburariari dirua eman dautso.
 Nik puztukia dendariari ordaindu dautsat.
 Saltzaileak dirua ordaintzen du.
 Erosleak dirua ordaintzen du.
 Dirua gauzak erosteko da.



Pello'k etxe au
 erosi du.
 Diru asko eman du.
 Etxe au garestia da.

Aitor'ek etxe au
 erosi du.
 Diru gutxi eman du.
 Etxe au merkea da.



100 pezetako papera



500 pezetako papera



1.000 pezetako papera



100 pezeta



50 pezeta



25 pezeta



5 pezeta



bi erreal



1 pezeta

Txanponak

Esan egizu bost
 gauza garestiak.

Esan egizu bost
 gauza merkeak.

Zer ote da?

Nerekin
 salduta erosi,
 ni gabe
 gaizki bizi.



84

Nekane dendara doa
eta kilo bat arroz erosi du.
Nekane'k dendariari dirua eman dautso.




Dendariak gutxiegi kobratu dautso.
Nekane'k dendariari esan egin dautso.



Yulen'ek ingurrazti bat
erosi du, baina
apurturik dago.
Yulen'ek itzuli egin
dautso.

Zer egin behar dugu?
Diru gehiegi kobratu ezkeru?
Diru gutxiegi kobratu ezkeru?
Liburua apurturik saltzen badauskue?


Zertarako dira?



Baskula



Balantza




Metroa

Egia ote da?

Esnea metroka saltzen dala?
Ogia litroka saltzen dala?
Oihala kiloka saltzen dala?

Marraztu ezazu balantza bat.



Indioka guk jolas egiten dugu.
Ipuinak irakurtzen ditugu.
Telebista ere ikusten dugu.

86

Jostaketak



Ziñean gauza politak
ikusten ditugu.



Abere-tegian abereak dagoz:
jirafa lepa-luzeak eta elefanteak.
Ximinoak jostakinak dira.
Peru'k intxaurreak
botatzen dizkie.

Barraketan zaldiko-mandikotan
poz-pozik
jostatzen gera.

Sekulan
ez naiz
aspertzen.

87



Zirkuan dagoz
pailaso jostakinak,
santimanki arinak
eta
pizti-ezlariak.

Zirkua ikustera
oso pozik joaten naiz,
baina leoiak
bildurra
ematen daust.

88



Ezagutzen
ahal
dituzu?

oai



89

Jolastu
bainan
ongi.



Imanol'i landa eta
zelaietan ibiltzea
gutziz atsegin yako

Iñaki'k berriz,
marrazkiak egiteko
zaletasun
andia du.



Erantzun zazu:

Zertan jolasten zerate zuek?

Mutil alperra
gezurti eta
okerra.

Mutil langille
denen
adiskide

Koldo gauza
polit bat
asmatzen
ari da.



Atera zaio.



Ipuietako norbait marraztu zazu.



Loreak


Loreak politak dira.
Loretxoak usain gozoa ematen dute.
Loreekin lore-xortak egiten dira.
Gure etxe aurrean loreak daukaguz.
Gure amak loretxoei azi ditezen,
ura botatzen dautse.

92



Lore landarea.

93



Lorontziak buztinezkoak dira eta ontzigileak egiten ditu.



Abestia. Lore polita ontzian
begiraten dutanean,
orduan zauzkat,
ene maitea,
nere gogoan.



Gure amak lorontzi
bat erosi
eta lurraz bete zuen.
Ontzian lore-aziak
erein zituan.
Gero ura bota eta
balkoian ipiñi zuen.

Egun batzuk
geroago

landare
txiki bat
sortu zan,

eta landareak
loreak
eman zituen.



Landaretxoak azteko
ura behar du.
Baita aizea
eta argia ere.



Karmele'k lore polit bat zeukan,
baina ez eutsan urik ematen,
eta lorea ihartu egin yakon.

Loretxoekin
leioa itxita lo egin ezkeru
buruko miña etortzen da.

Loretxoak
ongi
zaindu
behar
dira.



Loretxo auek
zergatik ihartu ote dira? *urik*

ez dirak ura bota

Sua

Gure amak sukaldean
janariak egosteko
sua pizten du.

Suak garra ematen du.
Sugarrak erre egiten du.
Neguan otz geranean,
suak berotu
egiten gaitu.



Eguzkia
Jainkoak piztutako, izioturiko argia da.
Eguzkiak beroa ematen dausku.
Eguzkiak argi egiten dausku.

Paperak, egurrak eta abarrak,
su artzen dute.

Alkoholak eta gasolinak ere
errez egiten dute su.

Arriak ez du surik egiten.

Urak ere ez.

Urak sua itzali
egiten du.



Garra

Arrasta

Surik egiten ez duten gauza batzuk esan itzazu.
Su egiten duten beste batzuk ere bai.

Aintzina, gizonek surik egiten ez zekiten.
Lehen, aragia gordinki jaten zuten.
Gizonak neguan ezin ziran berotu.



Gero ikasi zuten
sua egiten
eta guk orain
aragia sutan erreta
jaten dugu.

Janariak sutan egosita jaten ditugu.
Neguan suaz berotzen gera.

Sua gauza ona da.



Ogi-labea



Burdin-labea



Labe-garaiak

Suarekin	Janariak egosten ditugu	Neguan berotzen gera
Egurrezkoa		
Ikatzezkoa		
Gas'ezkoa		

Sua beharrezkoa da.

Surik gabe nola biziko giñake?

Piipitakia:

Piipitaki
paapataki,
nik ba dakit
gauza bat.

Gorputz luze,
buru bero,
sua piztu,
bota gero.

Zer da?

Kontuz ibil suaz!!
Suak etxeak eta basoak
erre egiten ditu.



Etxe batek
su artzen duenean,
izungileak etorri
eta sugarrak
itzali egiten dituzte.



Mendi batzuk
sua botatzen dute.
Su-mendiak dira.



Aingeru'k
arrastekin
jolasketan
beatza erre du.



Elixabete
sutondoan
eseri da,
eta
soinekoak
erre ditu.



Ordularia

Gaua da
Xabier lotan dago,
baina itzartu da
eta iru kanpai-ots
entzun ditu.

Zer ote da?

Elizako erlojua da.

Zer ordu da?

Goizeko irurak dira.

tan, tan, tan....

Irurak dira.



Goizaldeak amabi ordu ditu.
Arratsaldeak beste amabi.
Egunak ogei ta lau ordu ditu.
Orduak irurogei miñutu ditu.
Miñutuak irurogei segundo.

Ordularia zertarako ote da?

ordua jakitzeko



Seaska-abestia

Din, dan, boieran
elizako gauzetan.
Din, dan, boieran
gure ama koleran.
Dingindin, dangandan,
dingindin, dan.
Din, dan, boieran
gure aurra koleran.



Ordulariak
bi orratz ditu.

Ordulariak
amabi zenbaki ditu.

Zer ordu dan igarten
ikasi behar duzu.

Orratz txikiak
orduak izendatzen ditu.

Orratz aundiak
miñutuak ematen ditu.


Zer ordu dan jakiteko,
lehenik, orratz txikiari
begiratu zaiozu.

Onek esango dautzu
zer ordu dan.

Gero orratz andiari
begiratu zaiozu.

Onek zenbat miñutu diran
esango dautzu


Txirriña



Esku-ordua



Sakel-ordua




Eguzki
orratza



Elektrika
ordua



Are-ordua



Orma-ordua



Kronometroa



Ordu-ordua



Guk gure etxean
orma-ordua daukagu.

Gure aitak eskumuturrean
esku-ordua dauka.

Gure amaren ordulariak
itzartzen gaitu goizetan.

Ordulari onek txirriña du izena.



Ordulariak barruan
pirrita asko ditu.

Ordularia ondatzen danean
ordugiñak konpontzen du.



Ea dana ongi dakizun:

Egunak 24 ordu ditu.

Orduak 60 minutu ditu.

Miñutuak 60 segundo ditu.


Erlojuaren orratz txikiak

izendatzen ditu.


Erlojuaren orratz aundiak

izendatzen ditu.

Ordulari au txarki dago




Beste bat zuzen marraztu ezazu



Jaiak

Gaur igandea da.
 Jaia da.
 Ikastolarik ez dugu.
 Gure aitak
 ez du lanik egiten.
 Soiñeko berriak
 janzten ditugu.
 Mezatara joan ohi gera.



Jaietan goxoak erosteko
 amatxok dirua ematen daust.



Jaietan gure lagunekin
 enparantzan jostatzen naiz.



Igandeak eta jai-egunak
 atsedean artzeko dira.



Erri bakoitzak bere jaiak izaten ditu.
 Zure erriko jaiak noiz dira?
 Lehengo igandean zer egin zenuen?

Gure erriko jaietan pozik
jostatzen gera ziripot
eta kankailuekin.

Txistu eta txapliguak
goizean goizetik
entzuten dira.

Kankailuei nik ez dautset
bildurrik.



110

Gure erriko jaietan
ahideak etortzen dira bazkaltzera gure etxera.

Ona
emen
jaiegun
andi
batzuk:

Urtarrilla
1



Urte-berri

Urtarrilla
6



Erregeak

Martxua
19



Jose
deuna

Maiatza
1



Jose
Langilearena

Azaroa
1



Domusantu

Abendua
25



Eguberri



Bestaberri

Urtearen barruan beste jai batzuk ere ba dira.


Zorionak!

Saria irabazi
duzu.



Urte-betetzeak

Peru'k
Zenbat urte ditu?



111



Astegunetan
ikasi egiten dugu.



Jaiegunetan
jostatu egiten dugu.


Zuhaitz-pestan zuhaitzak landatzen dira.
Gizon edo emakume egiten geranean
gaurko landareak zuhaitz
andi izango dira.



Iturri askok ibaia egiten dute.
Ibaiak itsasora doaz.
Itsasoan ur asko dago.
Itsasoa
oso
zabala da.

Ura





Ura gazia
eta geza
izan diteke.
Iturrietako ura
geza da.
Itsasoko ura
gazia da.

x

Iturrietako ura
edatekoa da.
Itsasoko ura
ez da edatekoa.
Ur zikinik
ez da edan behar.

x




Ura asko berotu ezkeru

lurrundu
egiten da



Ura asko oztu ezkeru

izoztu
egiten da



Odeiak ur tantaz
beterik dagoz.

Euria ari du.

x

Ura bizitzeko
bearrezkoa dugu.
Urik gabe ezin bizi,
gizonak, abereak
eta landareak
egarriz ilko lirake.

x

115

Euriak soroetako
belarrak eta landareak
azi egiten ditu.



114

Urak gauza
askotarako balio du:
Edateko



Aurpegia
eta eskuak
garbitzeko.



Etxea
txukuntzeko.



116


Janariak
egosteko.




Argi-indarra sortzeko



Sua
Itzaltzeko



Itsasoko uretan
ontziak dabilta.
Itsasoko uretan
arrainak bizi dira.
Itsasoan igeri egiten dugu.
Kontuz gero!
Ez ito!



Eliza



Eliza
Jainkoaren
etxea da.

Gure erriko elizak
dorre andia dauka,
eta dorrean kanpaiak.
Kanpaiak Din! Dan!
mezatara ots egiten digute.

118

Elizak inguruan elizpea dauka.
Elizaren ondoan zuhaitzak dagoz.

119



Elizan aldareak dagoz.
Aldarean santuak dagoz.

Elizako sarreran
ur-bedeinkatu
ontzia dago.
Nik ur-bedeinkatua
artu-eta
"Aitaren"
egiten dut.



Aitaren eta Semearen
eta Espiritu Santuaren izenean amen.

Din, dan, kanpaiak jotzen du.
Elizako kanpaiak dira.
Elizara joateko
ots-egiten digute.



tan... tan tan...

tan tan...

tan tan.....



120

Elizan otoitz egiten dugu.
Elizan abestu egiten dugu.
Elizan sermoiak entzuten ditugu.
Elizan ixilik egoten gera.


Mezatarako ordua da.
Goazen azkar elizara.
Garaiz iritxi gaitzen.
Elizan zintzo agertu behar dugu.

121

Elizako aur auetatik
Nortzuk zintzo agertzen dira? Nortzuk ez?



Kristauek, batzarturik,
apaiza gidari dela,
meza egiten dute.



Eliza au txikia da.
Baseliza da.



Beste eliza au
Erriko eliza da.
Parrokia deritzaio.



Eliza andi au
eliza nagusia da.
Katedrala du izena.

Baina denetan berdin dago Jainkoa.

Eliza zertarako da?

degiak berba atz...

Jai-egunetan meza egin beharra ahal da?

Meza nork ematen du?

Txoriak

Txoriak egoak dituzte.

Mokoa



124

Txoriek euliak eta eltxoak arrapatu eta jan egiten dituzte. Txoriek mesede egiten dauskue.



Txoririk bai ahal duzute etxean? *et*


Abestia

Txori polita kaiolan begiraten dutanean orduan zauzkat, ene maitea! nere gogoan.

125




Marraztu egizu txoriak.



Txoriak udaberrian
kabiak egiten dituzte.
Eta kabietan arrautzak
egiten dituzte.
Arrautzetatik
txorikumeak
sortzen dira.
Txorikumeei
aita-amak jaten
ematen dautse.

126



Txorikumeak lumarik gabe jaiotzen dira.
Gero lumatu egiten dira.
Orduan, kabia utzi
eta aidatu egiten dira.

Abestia

Aita, non egiten du
pinpiñak kabia?
Sagarraren gañean
belarrez josia.
Lara, la, lai, belarrez josia.
Lara, la, lai, belarrez josia.

127



Aita non egiten du enarak kabia?
Gure tellatupean lokatzez josia.
Lara, la, lai, lokatzez josia.
Lara, la, lai, lokatzez josia.

Txori auek enarak dira.
Enarak udaberrian etorri
eta udazkenean joaten dira.



Txomin'ek
kabia artu
eta arrautzak
puskatu egin ditu.
Txomin gaiztoa da.

Txorien jantziak LUMAK dira.
Enarak UDARRA n etortzen dira.
Txoriek zuhaitzetan KABIA egiten dute.




Enarak uda beroa
ekartzen dute

Amiamokoek
elizetako dorreetan
kabia
egiten dute.

Édurne'k ogi apurrak botatzen dautsez txoriei.
Edurne txorien laguna da.
Txoriak Edurne'ren lagunak dira.

Egurastea

Eguzki ederra da.
Eguraldi ona egiten du.
Etxetik jendea kanpora
egurastera doa.



Arantza
bere gurasoekin
egurasten da.

Aitor bere lagunekin egurasten da.



Zuhaiztian aur asko dago.
Batzuk txirindulan dabilta.
Beste batzuk oinez.
Danak aize zabalean egurasten dira.



Alkarrizketa

Zuk norekin egurasten zera?
Mendigoizalea ahal zera?

Mendira zoaztenean zer egiten duzute?

Koldo
bere aitarekin
egurastera doa.

Aitak bere
lagun mami bat
aurkitu du.

Biak itzegin bitartean
Koldo ixilik dago.



Begoña
bere amarekin
egurastera doa.

Amak bere
lagun mami bat
aurkitu du.

Biak itzegin bitartean
Begoña'k amari
joateko eskutik
tiraka egiten dautso.



Andoni eta bere
lagunak egurastera
irten dira.

Andoni'k osabarekin jolas
apur bat egin gabe
ez du sosegurik.



Begira,
eta gaizki zer dagon
esan zazu.



Ikastolako aurrak
bere maisuarekin
mendira joan dira.

Aur batzuk alkarrekin
dabiltza.



Mendiko aizea osasungarria da.

Arratsaldean menditik etxera

oso ~~ALAYAK~~ datoz.



Mendian bazkaltzen.
Bazkari gozoa da.



Ara zein alai dagon
gure Euskalerra,
aritz, pago eta lizar
ederrez jantzia.

Mendi gain bakoitzean
eliza txikia.
Zuhaitzak inguruan
puntan gurutzia.

Berebilak

Aintzina,
gizonak oinez
ibiltzen ziran.


Gero,
asto gainean.




Geroago
zaldi-gurdiak
egin zituzten
eta gurpilak
zurezkoak
eta
burnizkoak ziran.



Orain motor
kotxeak dagoz
eta gurpilak
gomazkoak dira.
Kotxean oso
azkar gabitza.




Egazkinean
itsas-ontzian
eta trenean
ere,
gero ta
azkarrago
ibiltzen
ari gera.



Kotxe batzuk




txikiak dira.



Beste batzuk jende asko eramaten dute.
Autobusak dira.


Kamioiek



Zama
aundiak
eramaten
dituzte.

Beste kotxe batzuk
taxi dute izena.
Premia dutanean
taxi bat artzen dut.

Taxizainak
nik nahi
dudan tokian
uzten nau.



Nik dirua ematen deutsot ordainez.

Zer dago emen txarki? Zergatik?




Kontuz gero kotxeekin!!!
Espaloitik
ibil zaite
beti.



Yontxu bazterretik dabil.

Ongi egiten du.



140

Mirentxu'k
autobusa
artzean txartela
ordaintzen du.



Zaharrei
uzten die
Mirentxu'k
bere aulkia.



Irudi ontan zenbat uts
aurkitzen dituzu zuk?

141



Zuhaitzak

Begira... Bai ederrak dirala!!
Zuhaitzak landareak dira.




Zuhaitzek adarrak dituzte
eta adarretan orriak.
Zuhaitzek enborra dute,
baita erroak ere.
Erroak lurpean dagoz
eta ez dira ikusten.
Zuhaitzak loreak ematen dituzte,
baita igali gozoak ere.
Sagarrak, gereziak, aranak, eta madariak
zuhaitzak emaniko igaliak dira.

Zuhaitza



Zer izen du gauza bakoitzak?



Nola bizi dira zuhaitzak? *Sustrainek*

Zuhaitzek, erroak bide diralarik,
lurreko janariak artzen dituzte.

Zuhaitzek orrietatik arnas artzen dute.

Zuhaitzak erne eta azi,
ihartu eta il egiten dira.



Laranja-ondoak
laranja
igaliak
ematen ditu.



Madari-ondoak
madariak
ematen ditu.



Sagarrondoak
sagarrak
ematen ditu



Lerrak
ler-aziak
ematen ditu.





Udaberrian zuhaitzak orriz
eta lorez apaintzen dira.

Udazkenean orriak
erori egiten dira



Bai atsegingarri dela
eguzki beroan,
zuhaitz gerizapean
atsedena artzea!!



Neguan zuhaitzak
orririk gabe dagoz.



Gernika'ko arbola
da bedeinkatua
euskaldunen artean
gutziz maitatua

Eman ta zabal zazu
munduan frutua
adoratzen zaitugu
arbola santua.





Garia udazkenean ereiten da.



Udaberrirako erne-ta egoten da.

Udan landarea eldu egiten da.

Landareak galburua ematen du.




Nekazariak itaitu egiten du.

Eta gero, larrainean jo.

Alea lastotik berezi egiten du.



Alea errotan eio egiten da irina egiteko.
Irin zuriaz okinak labean ogia egiten du.



Erantzun zazu:

Zer ote da?

Gariarekin zer egiten da? *ogia*
Irina zertarako da? *ogia*
Garia noiz eldutzen da? *udan*

Soroan jaio ta soroan bizi, errotan eio-ta labean egosi.

Gari aleaz
gari-irina egiten da.
Artalea eio-ta
artirina egiten da.

Gari-irina
zuria da
Arto-irina
orixka da.



Artirinaz, behiak, zerriak,
oiloak eta xitak gizentzen dira.

Alkarrizketa

Nork ereiten du garia?
Zer da itaitzea?
Non gordetzen da garia?
Non eiotzen da garia?

Aurki-bide'a

Sendia	5
Janariak	12
Jantziak	19
Etxea	24
Argia	32
Etxeko abereak	38
Jostaketak	44
Lagunak	50
Kalea	56
Gabonak	62
Gaitzaldiak	68
Garbitasuna	74
Saldu eta erosi	80
Jostaketak	86
Loreak	92
Sua	96
Ordularia	102
Jaiak	108
Ura	113
Eliza	118
Txoriek	124
Egurastea	130
Berebilak	136
Zuhaitzak	142
Garia	148

